


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2012KO EKAINA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,4 jaitsi dira 2012ko ekainean, aurreko hilaren aldean

Eraikuntzaren kostuak % 0,8 igo dira azken hamabi hilabeteetan (2012ko ekaina, 2011ko ekainarekin alderatuta)

EUSTATEk emandako datuen arabera, 2012ko ekainean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,4 jaitsi zen aurreko hilaren aldean eta, beraz, urte arteko tasa % 0,8 igo zen hilabete horri dagokionez.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2012



(*) Gehikuntza ekainako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2012ko ekainean, eskulanaren kostua ez zen aldatu (% 0,0); lehengaien kostuek, berriz, % 0,5 egin zuten behera.

Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreen kasuan, lehengaien kostua jaitsi egin zen ekainean; Etxegintzan % 0,2ko jaitsiera izan zen aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilean, berriz, % 1,5eko jaitsiera. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran zenbait desberdintasun daude: Etxegintzako lehengaien kostuak % 0,9 igo ziren eta, Obra Zibilari dagozkionek, berriz, % 0,5 egin zuten gora.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan honako hauek izan dituzte inflazio-tasa handienak: energia elektrikoa eta gasa (% 10,5), makineria (% 6,0) eta industria kimikoa (% 3,4), besteak beste. Aitzitik, urteko prezioetan (2012ko ekaina, 2011ko ekainaren aldean) jaitsierak edo igoera txikiagoak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: metalurgia (% -5,3), beste produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa (% -0,3) eta beste manufaktura-industriak (% 0,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO EKAINA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	120,1	-0,4	0,8	-0,3
ERAIKINAK	119,2	-0,2	0,9	-0,2
OBRA ZIBILA	123,7	-1,1	0,6	-0,6
LEHENGAIEN KOSTUA	119,1	-0,5	0,8	-0,7
ERAIKINAK	118,0	-0,2	0,9	-0,6
OBRA ZIBILA	123,5	-1,5	0,5	-1,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.